

Opari pozoitu bat

Oihane Larretxea
de la Granja

Zein da eufemismoaren eta gezurraren arteko muga? Zein da jendea inozoa dela pentsatzearen eta herritarrak tontotzat hartzearen arteko ezberdintasuna? Bada albiste mota bat idazten denean ondo gordetzea merezi duena, jakin bada-kizulako, edo susmatzen duzulako behintzat, hemeroteka aberastuko duela; hau da, berriak bigarren buelta bat izango duela dakizu. Frogatuko dizuna inozotzat ez, tontotzat hartu zaituztela. Eta bertan jasotako hitzak, gezurra mo-zorrotzen duten eufemismoak baino ez direla. Denbora eta pazientzia kontua da. Eta momentu hori iritsi da.

Badira hiru urte pasatxo Cristina Iglesias eskultore donostiarrak hiriko Santa Klara uhartean eskultura egiteko asmoa iragarri zuela eta, geroztik, gaiarekin bueltaka gabiltza. Lanak aurrera doaz eta, antza, urte amaierarako amaituta egon daizteke.

Puntu honetan, bi taldetan sailkatuko dut jendea. Irla «ondo» maite dugunok eta irla «gaizki» maite dutenak (haiek irla maite dutela esango baitute). Eta azalduko dut.

Eskultura instalatzeko, 60ko hamar-kada bukaeratik erabilerarik ematen ez zitzaien uharteko itsasargiaren etxea hustu dute eta obraren piezak banan-

banan eraman dituzte... helikopteroz. Artistak obra hiriari dohaintzan eman dio, baino lanen ordainketa aurrekontu publikotik eta ekimen pribatutik egin da. 4,2 milioi euro (momentuz). Eskandalu bat. Opari pozoitu bat.

Baina dirutza alde batera utzita, «eskultura bat» instalatzeko egiten ari diren suntsiketa paisajistikoa eta ekologikoa da erabat penatuta naukana. Eta paradoxikoa zera da: egileak proiektua diseinatu zuenean «naturaren eta kostaren kontserbazioaren gainean hausnarketa» plazaratu nahi zuen «arteak argia ekar dezakeelako». Lehendabiziko galderaren erantzuna baduzue? •

Izaki maskaratuak

Koldo Sagasti

Koronabirusaren izurritearen ondorengo garai berriek hiri paisaia berriak eta pertsonen arteko harreman molde berriak ekarri dituzte. Anormaltasun berri honetan bada gure bizimodua baldintzatu duen elementu arrotz bat: musukoa. Aho-estalkiak aurpegirik gabeko izaki ibiltarien erresuma bihurtu ditu gure kaleak. Eta, pertsonen arteko elkarreragina baldintzatzeaz gain, erabiltzaileen nortasunean ere eragin du.

Maskarak norbanakoaren identitatea indargabetzen du. Aurpegia estalita daramana errazago konformatzen da, nortasunik gabeko artalde baten parte sentitzen hasten da, identitaterik gabe-

ko kolektibitate baten kide anonimo. Eta anonimotasun horren babesean izaki maskaratuak besteak salatze beldurra galtzen du. Gizateria salbatzen ari delako sentimenduak harrotuta nagusitasun moraleko sentsazioa dauka, eta masailekoa ez daramana salatu dezakeeneko, jakin gabe bestearen aurpegia ez estaltzeko motiboak zeintzuk diren, katamalorik gabekoa arerioa delako, gizateria akabatu nahi duen bihozgabea.

Musukoa politizatu egin da. Pentsaera hegemonikoa kolokan jartzen duen edozein iritzi disidente gustuko ez dutenak eroso sentitzen dira mozala jantzita, eta areago, guztiok muturra esta-

lita ibiltzea nahiko lukete, horixe baita zuzentasun politiko berriaren adierazgarria. Behinola, maskara ezarritako boterearen aurkako disidentziaren ikurra zen, klandestinitatearena; pandemiaren ondorengo testuinguru berrian, berriz, obedientziaren eta otzantasunaren ezaugarri bilakatu da.

Ez naiz ausartuko ukatzera zenbait kasu zehatzetan, eta ikuspegi zientifiko huts batetik, masailekoak birusaren aire bidezko transmisioa eragotzi dezakeenik, baina mozalaren fenomeno neurri profilaktikoetatik harago doa. Anormaltasun berriaren irudi bilakatu da. Aurpegirik eta nortasunik gabeko izaki akritikoen kontrolerako tresna. •